



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka Izagirre Brosa

Telesail gutxietsiak

Boardwalk Empire

HBO

56 atalen ostean, harrokeriarik gabe eta zarata gutxi ateraz, 2014. urtean, betiko agur esan zigun telesail erraldoi honek. Bost urtez jarraitu genion pertsonaia ahaztezinez jositako istorio izugarri eta bortitz honi; pantaila txikiaren historian letra larriz idatzita geratu diren sekuentzia eta une hunkigarri zein beldurgarri osatutako antologia dramatiko, baina zoritxarrez “telesail gutxietsien” edo “ahaztuen” multzoan geratu dena.

Mafiari eta krimenari buruz hamaika film eta telesail ikusi ditugu, baina horietan konplexuena eta biribilena izan liteke “Boardwalk Empire”. “The Godfather” (Francis Ford Coppola, 1972), “Scarface” (Brian De Palma, 1983) edota “Goodfellas” (Martin Scorsese, 1990) bezalako maisulanak dakarzit aldika burura, eta horrek telesailen olinpora zuzenean sartzeko baimena ematen dio. Istorioa Atlantic City hirian gertatzen da, eta 1920an hasi eta 1931n amaitu; ondorioz, AEBetan lege lehorra indarrean egon zen garaia du agertoki. Garai hartan negozioaren buruetako bat izan zen Nucky Thompson du protagonista. Bost denboraldi sutsutan zehar ikusiko duzun bezala, bizitza zaila izan zuen, eta negozio ilunetara egindako bidaia progresiboak inolako barkamenik merezi ez duen gangster bihozgabe bihurtu zuen.

Pertsonaien arteko borroka morala da, heriotza eta erredentzioarekin batera, telesail osoa harilkatzen duen gaia, eta

Peak TV. Hori da azken urteetan telebistaren arloan eta AEBetan hedatzen ari den hitza. «Telesailen burbuila» bezala definitu daitekeen termino horrek adierazi nahi du iristear dagoela ekoizpen horien gailurra –2019an AEBetan soilik, 532 telesail estreinatu ziren–. Pantaila txikian produktu gehiegi dagoela adierazteko espresioa da: kontrolrik gabe estreinatzen dira eta askotan zalantzazko kalitate maila izaten dute. Zaparrada horren eraginez, eta batik bat plataforma digitalek erabiltzen dituzten ezkutuko algoritmoen erruz, oso erraza izaten da potentzialtasun handia duten ekoizpen ugari ahanzturan erortzea. Zer esanik ez ekoizpen horiek «estreinaldi» zein «telesail berri» etiketa ez badaramate. Horregatik, atzerabegirako oso txiki bat egin nahi dut, ostrazismoan erori diren eta urteen poderioz gutxietsiak izan diren ezinbesteko telesail batzuk berreskuratzeke.

istorio kaleidoskopiko baten bidez AEBetako krimen antolatu nola sortu zen erakutsiko digu. Horri oso gutxitan ikusi dugun girotze lan ikusgarria eta atal tekniko bikaina gehituz gero, maisulan baten aurrean zaudela ohartuko zara.

Carnivàle

HBO

“Freaks” filmeko pertsonaiak, “The Grapes of Wrath” eleberriko elementuak eta David Lynch-en atmosfera nahasiz gero, se-

kula dastatuko duzun irabiatu-rik ausartenaren eta berritzaileenaren aurrean zaudela ohartuko zara. Hori bai, zurrutada lodikoa da, konplexua, eta hainbat momentutan digeritzeko zaila. “Carnivàle” telesail bikainaz ari naiz, bertan behera utzi zuten telesail gutxietsia.

Ikusle arinentzat ez da agian telesailik egokiena; telesail zale zorrotzentzat, aldiz, zinez gomendagarria da; eta ekoizpen ausart, desberdin, berritzaile eta mamitsu baten bila dabilzanentzat, ezinbestekoa. Ez zuen pasio uholderik eragin

bere garaian, baina harrapatu zituen zaleak sutsuak eta leialak dira –ni barne–. Mito baten aurrean gaudela esateak gehiegikeria dirudien arren, “Carnivàle”-ek merezimendu osoz irabazi du mito edota kultuzko telesail ahaztuaren izendapena.

Ongiaren eta gaizkiaren arteko borroka da ekoizpenaren ardatz nagusia. 1934. urtean kokatua, Amerika hegoaldean eta depresio handiaren muinean. Ben Hawkins, hemezortzi urteko umezurtza, *freak show*-a, vaudevillea eta prostituzioa nahasten dituen zirkura batuko da. Zirku hori, nola ez, pertsonaia bitxiz eta konplexuz beteta dago: Samson zuzendaria, Lila emakume bizarduna, Alexandria eta Caladonia ahizpa siamesak edo Gecko musker gizona, besteak beste. Atal bakoitzak karabana horren egunerokoa du ardatz, eta bata bestearen atzetik, jainkoaren eta deabruaren arteko gerra erakutsiko digute, batez ere bigarren denboraldian.

Atal bakoitzak jariatzen duen lurrinak zinematik onenaren usain berbera du. Gaienezka egiten duen ambientazioari eta zehaztasunez zaindutako ekoizpen diseinuari esker begietatik sartzen da zuzen-zuzenean.

Manhunt Unabomber

Netflix eta Rakuten TV

Telesail antologikoa da eta lehenengo denboraldia Ted Kaczynsky serieko hiltzaileen benetako kasuan oinarritua dago, hura harrapatzeke




prozesuan ardaztua batik bat. Denboran saltoak eginez, ehi-za hori maisuki kontatzeko trebezia erakusten dute dute. Pertsonaiak eta estetika azter-terako orduan, “Zodiac”-en ukituak topatuko dituzu, eta elkarrizketa bizi eta mami-tsuetan Aaron Sorkinen abile-zia. Gustu ikaragarritz filma tua, bi protagonisten arteko interpretazio duela bikaina ikusteko aukera eskaintzen di-gute.

Erreferentziak aipatzen hasi-ta, saihetsezina “Mindhunter” telesailarekin duen lotura nahi-ko zuzena. Kasu honetan, bene-tako magia, kamera Kaczynski-ren atzetik doanean gertatzen da, baina ez bakarrik poliziare-kin izandako topaketetan, bere eguneroko “arrunt” horren ja-rraipenean baizik. Hiltzaile ba-ten alderik gizatiarrena erakus-ten saiatzen dira, gerora ikusle gisa zaplazteko galanta jasotze-ko. Ez pentsa dena den akzioak gainezka egiten duen ekoizpen bat ikusiko duzunik, su motele-an kozinatzen diren osagaiak jartzen baititu mahai gainean, elkarrizketa finekin lagunduta eta interpretazio bikainez hor-nituta.

Quarry

HBO


“Quarry” 70eko hamarkadan Memphis hirian arnasten zen atmosfera latz horren esentzia hutsa da. Martin Luther Kingen ondorengo Amerika horretan, bi bidaia mota sentiaraziko diz-kigun bitartean: Vietnamdik fi-sikoki itzultzea eta bidaiarik la-tzena, gerra horren ondorengo bizitza “arruntera” bueltatu be-harra. Testuinguru horretan aurkeztuko digute Mac Conway (Logan Marshall-Green) prota-agonista. Gerra latz horretatik bueltatu berri den soldadu ohia, trauma ondorengo estres mo-duko bat bizi duena eta nahi ga-be ustelkeria eta hilketa sare ilun batean murgilduko dena.



Tartean, herriko biztanle eta ko-munikabideen arbuioa jasoko du, izan ere, Vietnamgo gerran sarraski latz eta penagarri baten erantzuleetako bat izatea lepo-ratuko diote.

Erritmo motela duela kriti-katu dute batzuek, alderan-tzizko iritzia dut nik ordea. Denbora menderatze hori bai-ta nire ustez, alderdirik bote-retsuenetarikoa; pertsonaiak, trama eta beraien arteko erla-zioak ikuslearen burmuin ba-rruan zimendu sendo batzue-kin eraikitze ko erritmo perfektua erabiltzen baitu. Trama nagusian zehar, Otis Redding edo Van Morrisonen binilo zaharkitu horien melo-diak markatzen dute askotan tempo hori. Hiria eta garai hartako musikaren arteko er-lazio bikain hori ikustean, saihetsezina da hainbat mo-mentutan “Treme” telesaila burura ez etortzea. musikak sekulako garrantzia eta pisua hartzen baitu gidoian.

Atmosfera itogarria ere badu, iluna, astuna. Zortzi ataletan ze-har kokatzen diren testuingu-ruan beharrezko zama emozio-nalarekin nabigatu ahal izateko perfektua. Horrek pertsonaia na-gusiaren klaustrofobia hori mo-du paregabea islatzen lagun-tzen du.



Olive Kitteridge

HBO

Elisabeth Strouten Pulitzer sa-rian oinarritua. 25 urteetan ze-har, matematikako irakaslea izan den Olive Kitteridgeren bi-zitza kontatzen duen drama sa-kona da aukeratu dudana azken miniseriea. Istorioa, herriko ins-titutuko matematika irakaslea den adin ertaineko emakume batekin hasiko da. Henry farma-zialariarekin ezkondua, biak, be-re seme Christopherrekin bate-ra bizi dira, eta istorioa haien zahartzaroraino iritsiko da.

Ordubete baino gutxiagoko lau ataletan banatutako ekoiz-penak modu kostunbristan era-kusten digu emakume horren, haren familiaren eta auzokide batzuen bizitza. Generoa drama dela esango nuke argi eta garbi, bizitza arruntez diharduen arren, aurkezten zaiguna askoz ere dramatikoagoa delako. Tele-sailak duen umore urria beltza da, batez ere Kitteridge pertso-naia nagusiaren nortasunak era-giten duenean: emakume bertu-tetsua, baina lagunak egiteko jaio ez dena. Soiltasun horren azpian ordea, sentimenduen zu-rrunbilo etengabea topatuko duzu: emozioa, ironia, samurta-suna... Frances McDormand ak-tore bikainari esker iristen zaiz-kigu emozio printza horiek, haren gizatasun eta jenio biziak pantaila zeharkatzen baitute.

Miniserie bikaina, parega-bea, garratza, iluna, tristea eta suntsitzailea. Depresioa, ga-run gaixotasuna eta batez ere tinko eta gupidagabe pasatzen den bizitzari buruzko ikerketa sakona eta latza, bere oinarria-ren itxura sinplearen muine-an maila ezezagunetan harra-patzeko gai den giza disezio distiratsu eta garratza ezku-tatzen baitu. Aktore guztiak maila zoragarrian daude, bai-na nabarmentzekoak Frances McDormand, Bill Murray eta Richard Jenkins, erraldoiak. Urteekin ahanzturan erori den beste maisulan bat.